

artikulu nabarmenak
artículos destacados



iraila/septiembre



PÉREZ VAQUERO, Carlos: [La justicia juvenil en el derecho europeo](#). *Derecho y Cambio Social* aldizkaria, 2014ko martxoa, 37. zk.
Europako Kontseiluak Europar Batasunak baino neurri gehiago hartu ditu gazteen delinkuentziari aurre egiteko. Neurri horietako zenbait biltzen dira, eta berorien inguruko iruzkinak, neurri on edukiari eta unean-unean langai zituzten testuinguruari buruzkoak. Gazteen delinkuentzia prebenitzeko Europako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren 2006ko martxoaren 15eko Irizpena eta gazteen delinkuentziari buruzko Europako Parlamentuaren 2007ko ekainaren 21eko Ebazpena sakon aztertzen dira



MARTÍNEZ ÁLVAREZ, José L. eta beste batzuk. [Vínculos afectivos en la infancia y calidad en las relaciones de pareja de jóvenes adultos: el efecto mediador del apego actual](#), in *Anales de psicología*, 2014, 30. libk., 1. zk., 211-220. or.
Alde batetik, ikerketa honek bi alderdiren asoziazioa aztertzen du: haurtzaroan gurasoekiko loturarena eta gaztaroan bikoteen arteko harremanen kalitatearena. Beste aldetik, aztergai ere bada asoziazio horrek nolako eragina daukan bikote-harremanaren baitako helduen atxikimenduan. Haurtzaroko uztarketa egokia izan baldin bada, eragina ona da bikote-harremanean eta helduen atxikimenduan. Horretaz gain, itxura batean bikotekidearen aitaren eragina pertsonarena berarena baino nabarmenagoa da prozesu afektiboetan.



LLUCH, Gemma. [Jóvenes y adolescentes hablan de la lectura en la red](#). *Ocnos: revista de estudios sobre lectura*, 11. zk., 2014, 7-20 or.
Hainbat analisi-maila kontuan izan dituzten bi ikerketak honako ondorioak azaleratu dituzte gazteen aldetiko irakurmenaren erabilerari dagokionez: eskola eta liburutegitik kanpoko irakurle-taldeak eratzen dituzte, edukiak sortzen dituzte, hainbat plataformatan aritzen dira, irakurketak ez ditu isolatzen, harreman afektiboak eraikitzen dituzte, eta lankide jardun ohi dute nahiz eta batzuetan lehian ibiltzen diren ere.

PERTSONA
HELBURU

COMPROMISO CON
LAS PERSONAS

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA ETA
KULTURA SAIA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA